

AURKEZPENA

Ba al dakizue gaur egun bakardadea jasaten duten zenbat nerabe dauden? Argi dago asko direla hau pairatzen dutenak. Gaia bere osotasunean aztertzen aritu gara eta Bakardade Ez Desiratuaren Estatuko Behatokiak (SoledadES), ONCE Fundazioaren laguntzarekin, bultzatutako azken azterlanaren arabera, 16 eta 14 urte bitarteko gazteen % 21,9a bakarrik sentitzen da. Horrez gain, beste hainbat ikerketa aurkitu ditugu bakardadearen arazoa areagotzen ari dela ziurtatzen dutenak, esate baterako, BBC egunkariaren arabera, depresioak nerabeen % 15ari eta, aldi berean, gurasoen % 16ri eragiten die. Beraz, arazo hau azertu ondoren beharrezkoa ikusi dugu gai honen inguruan zerbait egitea eta arazo hau jasaten dutenei laguntzea. Askotan, hau pairatzen dutenak arazo psikologikoak izaten dituzte eta guk gai hau kezagarria dela ikusita irtenbide bat ematea pentsatu dugu, hala nola, laguntza elkarte bat sortuz.

Gu Ane, Oier, Maren, Enaitz eta Leire gara, Urretxu-Zumarraga ikastolako 1 Batxilergoko ikasleak. Aipatutako gaia kezagarria iruditzen zaigu eta horregatik nerabeak azertu ditugu. Ohartu gara adin inguru hauetan, aldaketa asko izaten dituztela, batez ere, lagun kontuetan zalantza eta buruhaustek: zer kuadrilatan onartuko naute? Bakarrik geratuko naiz?... Duela gutxi honako kasu bat gertutik bizi izan genuen, eta bakartuak, haren familiak eta maite duten inguruko pertsonak nola sufritzen duten konturatu ginen. Egoera latz honek asko hunkitu gaitu eta honek konponbide bat izan behar duela erabaki dugu. Horretarako, elkarte bat sortzea ideia positiboa iruditzen zaigu, arazo hau duten nerabeak gure lokalean haien sentimenduak eta kezkak kontatzeko aukera izango dutelako. Ariketa batzuk egingo ditugu hauei laguntzeko eta gure arteko harremana konfiantzazkoa izateko. Gainera, elkarte honen bitartez taldekideen artean lagun talde bat sortu ahal izango dute eta haien arazoari arre egin.